


PRO



-ARRAINDEGIA -ITSASKIAK
-ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK

I. Olañeta, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59

ERMUA

DERMOESTETIKA
INTEGRATUAREN ZENTRUA

PILAR

(Estetika mixtoa espezializatua)

- HIDROMASAIA
- ESTETIKA MORFOLOGIKOAREN
DIAGNOSIA
- AURPEGIKO TRATAMENDUAK
- MEDIZINA HOMEOPATA

Gabon zoriontsuak!

Zubiaurre, 24 - 1. esk. ☎ 17 30 66
INFORMAZIOA ESKATU

Bar GERALEKU

Bost'erdietatik zabalik.

San Inazio, 5.

Urdaitegia
MAITE

Merkatu Plaza, 40
Telefona: 17 24 12

Beharra asetzeko arteak sortzen denean

Miguel Camararen kasuan bere amaginarrebaren gisatu zoragarriek izan zuten errua. Jose M^a Ramosi bere amak, sukaldari aparta nonbait, irakatsi zion arte hau. Jon Organbideren bilakaera "profesionalagoa" dei liteke, orain dela 20 urteko Akelarre jatetxean (orain Subijana ospetsuak daramana) hasi baitzen besteen aho eta urdailak gozarazten.

Horrela sartu ziren gure protagonistak sukaldaritzan eta sukaldearen munduan. Elkartu, Ermuko Lurpe soziedadean elkartu ziren, orain dela

Lehiaketaren historia Lurpe bertan hasi zen, lehen kanporaketan baikoitzak "bere etxean jokatzeko" zuela. Prozesu osoa izen garrantzitsuek osatutako epaimahaiak kontrolatzen zuten, hala nola, Diario Vascoko kritikaria den Javier Urroz, Berrizen izen bereko jatetxea duen Josu mendizabal Zornotzako El Cojo jatetxeko Juantxo eta iaz etxekoandreen lehiaketan hirugarren geratu zen Tatiana Suarezek.

Lehen oztopo hau igaro ondoren urrango urratsa Donostiako finalerdiak, zortzi talderen artean, zeintzue-



Gure protagonistak Lurpeko sukaldean.

RAUL BOGAJO

bost bat urte, sekulako sukaldaritzat aldea osatuz, orain dela gutxi erakutsi duten moduan. Horrela, IV. Euskadiko Gastronomia Elkarten Lehiaketan 18 soziedaderen artean laugarren postua lortu dute, sukaldari batzuen iritziz lehen postua merezi izan zuten arren.


Honez gain, sukaldeko teknikarik hoberenari saria, Lakor saria eta gozogintzaren lehen saria jaso zituen Jon Organbidek gidatutako talde honek norgehiagoka berean.

tatik lau finalistak atera behar baitziren. Ermuarrek lortu zuten beren helburua, bigarren platera 30 segundu berandu ateratzeagatik 10 puntuko zigorra jasan behar izan arren.

Final handian, azkenean nagusitu ziren Mazarredo Zuloa bilbotarrak, eta gasteizko Abendaño eta Yoar taldeekin lehiatu behar zuten, eta nagusitu ez baziren ere, "gero sari banaketan, Arzak sukaldariari egindako homenaldian, berak zera esan zuen, mailarik

oneneko elkarte ginela" dio Jonek. Gauza bera azpimarratu zuten Jose Ramon Roteta, Jose Juan Castillo, Martin Berasategi eta Josu Mendizabal bezalako sukaldariek.

Hemendik aurrera zer galdetzerakoan, zera diote, iazko moduan (non zortzigarrenak geratu ziren), aurten ere Lurpe elkartearen izenean aurkeztu dituztela beren buruak, gehien bat Javier Urroz eta Arzak berak pertsonalki eskatu zitelako, beraiek ez zutelako gogo handirik. Halere, "aurrerantzean ez gara aurkeztuko, orainarteko esperientzia eta Lurpe elkartearen barruan jasotako "eskerrona" direla eta" dio Jonek min-duta. "Gure helburua Lurpe elkarte eta Ermua gorenera eramatea izan da eta pozik gaude emaitzarekin, zeren lehena eta laugarrenaren arteko diferentzia zazpi hamarrenekoa izan da soilik" diote. Halere, ez omen dute soziedadearen zuzendaritzatik eta beste bazkide batzuegandik laguntzarik jaso, eta beren esfortzuak estimatuak izan ez direla sentitzen dute. "Hau dela eta, laguntza



Lehen kanporaketan lanean, epai mahaiko partaide batzuekin

askoz handiagoa eskatu behar dugu, beste elkarte batzuk ere horrelako lehaketatan parte hartzeko animatu nahi ditugularik. Eta baita ere eskertu nahi dizkizuegu komunikabideoi emandako erraztasun eta animoak" amaitzen du

Jonek.

Etxean behintzat ez omen zaie animo ta eskerronik falta, beraien emaitzak oso pozik daudelako horrelako etxegizonekin.

DIETETIKA ZENTROA



HERBODIETETIKA
SENDABELARRAK



KOSMETIKA NATURALA
ERREGIMENEO ELIKAGAIK


Izelaieta, 10 eta
Merkatu Plazan
Tfnoak: 17 02 13
(Etxekoa) 17 01 52



Eguneroko zerbitzua:
ERMUA, EIBAR, MALLABIA, ZALDIBAR, BERRIZ, BILBO

Zama guztientzako eskualdeko zerbitzua ERANDIO GARRAIOAK

Bulegoa: Zeharkalea, 27 • ☎ (943) 17 03 14 • ERMUA



Zubiaurre, 12
Tfnoa. 17 01 59

Bitxitegia

IGANE

VI Centenario, 19 Tfnoa. 17 46 34
48260 ERMUA

PATXI TABERNA

Gau eta egun
Alde zaharreko betiko taberna

Urte berri on!

